



Kontratazio
publiko elektronikoa
Contratación
pública electrónica

Kontratazio Publiko Elektronikoari buruzko galderak

www.contratacion.info
www.euskadi.net/kontratazioa




EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

11



Zer da Kontratazio Publiko Elektronikoa?

Legez, Herri Administrazioak merkatuetara sartzeko askatasuna eta enpresen arteko konkurrentzia askea bermatzen duten prozedurei jarraitu behar die bere intereseko ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko.

Orain artean, prozedura horiek paperezko euskarrian gauzatu izan dira (txostena argitaratzea, oinarriak eskuratzea, eskaintza bidaltzea, esleitzea, etab.)

Interneti esker eta sinadura elektronikoaren arloan egin diren aurrerapen teknologikoei esker, ordea, telematika bidez enpresatik bertatik egin daitezke gaur egun eginkizun horiek eta, bereziki, eskaintzen aurkezpena. Horrela sortu zen "kontratazio elektronikoa" kontzeptua.

Nola funtzionatzen du?


Kontratazio Publiko Elektronikoaren ardatz nagusia "lizitazio elektronikoa" deritzon aplikazioa da; aplikazio erabilerraza da, eta Interneteko nabigazio arruntaren bidez honako eginkizun hauek egiteko aukera eskaintzen du:

- Lehiaketetarako sarbidea
- Eskaintzak aurkeztea
- Dokumentazioa zabaltzea
- Dokumentazioa zuzentzea
- Eskaintzak zabaltzea
- Esleipena-Argitaratzea-Jakinarazpena
- Kontratua sinatzea

Kontratazio Publiko Elektronikoak honako onura hauek dakarzikie enpresei:

- Eskaintzak prestatzean denbora aurreztea.
- Prozeduraaldiak murriztea.
- Posta kostuak desagerraraztea.
- Joan-etorrian ibili beharrik ez izatea.

Erabateko segurtasun telematikoa bermatzearen, berme eta segurtasun gehien eskaintzen duen sistemaren aldeko apustua egin du Eusko Jaurlaritzak, eta Sinadura Elektronikoaren egiaztagiriaren teknologia aukeratu du, bai eskaintzak sinatzeko bai eskaintzak enkriptatzeko.





Eredu erraz, erabilgarri
eta segurua




Noiztik egongo da indarrean Kontratazio Publiko Elektronikoa?

Dagoeneko erabiltzen da. Azken lau urteetan egindako ahaleginari esker, Eusko Jaurlaritzak Estatuan Kontratazio Elektronikoa indarrean jarri duen lehen administrazioa izatea lortu du.

Hain zuzen ere, 2005eko urriaren 10ean egin zen lehenengo Lizitazio Elektronikoa; gaur egun, askotariko ondasunak eta zerbitzuak kontratatzen dira era elektronikoa, honako hauek besteak beste:

- Aholkularitza zerbitzuak.
- Aseguruak
- Bulegoko altzariak
- Segurtasun sistemak
- Kontu ikuskaritzak egitea
- Euskarazko eta gaztelaniazko testuen itzulpen zerbitzuak
- Etab.





Noiz erabili ahal izango du nire enpresak?

Eusko Jaurlaritzaren Kontratazio Elektronikoko Sistema proiektu progresiboa da; sisteman gero eta kontratazio organo gehiago txertatzea da xedea, presarik gabe, baina etenik gabe.

Bide horri jarraituz, Eusko Jaurlaritzak Kontratazio Elektronikoa Ezartzeko Gida Plana onartu zuen. Plan horretan honako data espezifiko hauek aipatzen dira Sail bakoitzerako:

Eusko Jaurlaritzaren Sailak eta Erakunde Autonomiadunak	Kontratazio elektronikoa abian jartzeko data
Ogasun eta Herri Administrazioa: · Kontratazio Batzorde Zentrala · Baliabide Orokorrak	2006ko martxoa
Herrizaingo Saila	2006ko iraila
Herrizaingo Saila, gainerakoa Polizia Ikastegia	2006ko iraila
Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza	2006ko iraila
Osasuna	2006ko urria
HAEE-Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea	2006ko urria
EUSTAT- Euskal Estatistika Erakundea	2006ko azaroa
Lehendakariordetza	2006ko azaroa
Ingurumena eta Lurralde Antolamendua	2006ko azaroa
Garraio eta Herri Lana	2006ko azaroa
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila	2006ko abendua
Kultura	2006ko abendua
Industria, Merkataritza eta Turismoa	2006ko abendua
Lehendakaritza	2007ko urtarrila
EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundea	2007ko urtarrila
Etxebizitza eta Gizarte Gaiak	2007ko urtarrila
Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura	2007ko otsaila
OSALAN - Lanerako Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea	2007ko martxoa
HABE - Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea	2007ko martxoa

Hala, eskaintzen dituzten zerbitzuen tipologiaren arabera iritsiko zaie enpresei kontrataziorako baliabide elektronikoak erabiltzeko aukera. **PRESTA ZAITEZI!**

Prest zaudenean, Eusko Jaurlaritzak zure enpresaren jarduerarekin loturiko produktu edo zerbitzu bat kontratatzeke premia duen arte itxaron beharko duzu, eta premia hori sortzen zaionean, eskaintza era elektronikoan egin ahal izango duzu.



Eredu erraz, erabilgarri
eta segurua



Nola jakin daiteke produktu edo zerbitzu bat era elektronikoa kontrata daitekeen?

Txosten bat kontratazioa era elektronikoa egiteko moduan eskaintzen denean, Kontratazio Publiko Elektronikoko Ereduaren zeinu grafikoa agertzen da txostenaren azalean eta oinarri tekniko eta administratiboetan, eta Kontratazio Prozeduraren deskribapenean honako esaldi hau agertzen da idatzita: "*Lizitazio Elektronikorako onartutako txostena*".

Gainera, Eusko Jaurlaritzak ohartarazpen zerbitzu bat eskaintzen du, eskaintza era elektronikoa egiteko aukera ematen duten txostenei buruz; zerbitzu horren bidez, kontratazio txostena argitaratu baino 30 egun lehenago ematen zaie enpresei horren berri. Hala, eskaintza egiteko interesa duten enpresek denbora aski izango dute eginkizun horretarako prestatzeko eta trebatzeko, eskaintza elektronikoa berme guztiak betez eta eraginkortasunez egin ahal izateko.


Azkenik, Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik beretik hasita eskuratu ahal izango da Kontratazio Publiko Elektronikoko Sistemaren bidez eskaintzen den txostena, lizitazio elektronikoko aplikazioaren bidez.

Nahitaezkoa al da Kontratazio Publiko Elektronikoa?

Gaur egun ez, Kontratazio Publiko Elektronikoa ez da nahitaezkoa. Baina 2004ko martxoaren 31ko kontratazio administratiboari buruzko 18/2004/CE zuzentarauak kontratazio elektronikoa eraginkortasunez ezartzea gomendatzen die Estatu kideei, gehienez ere, 2007. urtea amaitezerako.


Era berean, Europar Batasunak Europako herri administrazioen kontratazio guztiaren % 50 prozedura elektronikoen bidez egiteko helburua finkatu du 2010. urterako. Eusko Jaurlaritzak lehenbailehen bete nahi du helburu hori; izan ere, hasierako fasearen ondoren, ezinbestean ezarriko baita Kontratazio Publiko Elektronikoa, Herri Administrazioaren kontratazio moduen garapen teknologikoak bultzatuta.

Bestalde, Europar Batasunak era elektronikoa baino ezin exekutatu diren 3 kontratazio tipologia berri sortu ditu.



Garrantzikoa al da nire enpresarentzat?

Eusko Jaurlaritzak Kontratazio Elektronikoko Eredua ezarri izanari esker, administrazio guztiek denbora gutxi barru nahitaez ezarriko duten mekanismo batekin "esperimentatzeko eta ohitzeko" aukera dute euskal enpresek.





Eredu erraz, erabilgarri
eta segurua

Nola eskura dezaket kontratazio elektronikoari buruzko informazioa?

Pota bidez igortzen diren informazioez gainera, Eusko Jaurlaritzak Kontratazio Publiko Elektronikokoaren Ereduari eta horren aplikazioei buruzko informazioa ematen du honako helbide honetan:

www.euskadi.net

www.contratacion.info



Helbide horretan ematen den informazioaren bitartez Ereduaren eremu guztien berri jasotzen da; dena dela, honako atal hauek dira nabarmenenak:

- **Lizitazio elektronikoa:** Aplikaziorako sarbidea
- **Eskaintza era elektronikoa egiteko baldintzak:** Zer egin behar dut eskaintza era elektronikoa egiteko?
- **Lehiaketak eta lizitazioak:** Kontratazio Administrazioen bilaketa
- **Formazio ekintzak:** Aurrez aurreko formazioa eta online formazioa
- **Kontratisten Erregistro Ofiziala:** Kontsultak, izena emateko inprimakiak...
- **Erabiltzaileentzako arreta:** Euskarri Teknikoa Kontratazio Publiko Elektronikokoaren Sistemaren Erabiltzaileei

Batez ere eduki hauek erakusteko ataletara joatea merezi du:

- **Online formazioa:** Macromedia Flash aurkezpen multzo bat eskaintzen du; Kontratazio Publiko Elektronikorako prestatzen lagunduko die enpresei.
- **Erabiltzaileentzako arreta:** eskaintzak era elektronikoa egiteko aplikazioa erabiltzean sor daitezkeen gorabehera administrazio eta tekniko ohikoenei buruzko informazioa ematen du. Informazio hori irizpide hauetan oinarrituta erakusten da:
- **Gorabehera baten sintoma-kausak:** Gorabeheren kausa izan daitezkeenei buruzko alarma mezuaren zerrenda.
- **Lizitazio elektronikoko aplikazioaren erabilera sekuentziaren ondoriozko gorabeherak:** Aplikazioak erabiltzeko sekuentzian sor daitezkeen gorabeherari buruzko alarma mezuaren zerrenda.



Zer egin behar dut prest egoteko?

Eusko Jaurlaritzak berme eta segurtasun gehien ematen duen sistemaren aldeko apustua egin du Kontratazio Publiko Elektronikoko Sistema garatzeko.

Eta sistema horren izaera, konfigurazioa eta segurtasunerako soluzioak direla-eta, Kontratazio Publiko Elektronikoa aurreikusten diren mekanismo digital asko berriak dira. Hori dela-eta, zure ordenagailua prestatzeko zenbait neurri hartu beharko dituzu.

Presta zaituz, esperimenta ezazu eta ohitu zaituz Herri Administrazioak oro har etorkizunean erabiliko duen mekanismoarekin.

05. "Presta zaituz Kontratazio Publiko Elektronikorako" katalogoan hainbat proposamen agertzen dira kontratazio elektronikorako prestatzeko. Eginkizun asko aldi berean gara daitezkeenez, arrazoizko denbora tartean gauzatuko dira.

Prest zaudenean, Eusko Jaurlaritzak zure enpresaren jarduerarekin loturiko produktu edo zerbitzu bat kontratatzeko premia duen arte itxaron beharko duzu, eta premia hori sortzen zaionean, eskaintza era elektronikoa egin ahal izango duzu.